g) Justificación fehaciente de que el solicitante de la licencia dispone de un espacio privado de superficie mínima de 4 m$^2$ en el que poder guardar todo el mobiliario previsto, fuera del horario permitido para la ocupación de la vía pública, mediante la indicación de su dirección y aportación de un plano a escala adecuada de dicho recinto. Este recinto, que no tiene porqué estar cerrado, podrá tratarse de una zona del local hostelero, que no sea servicio necesario para el ejercicio de la actividad, pudiendo ocupar superficie de la zona pública, siempre que no obstaculice los recorridos y salidas de evacuación.

cve: BAO-BOB-2015a052

h) Erantzukizun zibileko aseguru primaren —22. artikuluan aipatzen denaren— kopia.

i) Instalazio proposamena. Horren barruan, gutxienez, ondoko dokumentazio hau egon beharko da:

— Instalazioaren oinplanoa 1:100 eskalan. Bertan honako datu hauek adieraziko dira: instalazioak bide publikoko zein zati hartuko duen; nola antolatuko diren mahai eta jarlekuak, alboetako babesak, jardinerak eta eguzkitakoak (proiekzio horizontala adierazten delarik); fatxadaren luzera eta libre geratzen diren igarobideen zabalera; oztopo finkorik ba ote dagoen (trafiko seinaleak, zuhaitzak, bankuak, hiri altzariak...); eta, azkenik, instalazioak udal zerbitzuei (ura, saneamendua, gasa...) edota ondoko lokalei eragiten ote dien.

— Ipiniko diren altzariak adierazi beharko dira; altzari horiek Udaleko zerbitzu teknikoen oniritzia jaso beharko dute ipini ahal izateko.

— Behin-behineko estalkirik jartzekotan, 15. artikuluan adierazten denaren arabera, berorren xehetasun planoa, 1:20 eskalan, oinplanoa eta altxaera zehazturik.

— Segurtasun eta apaintasun zioengatik eta Udalak behar bezala arrazoitu ondoren beharrezkotzat jotzen denean, eskudun teknikariaren berme sinadura eraman beharko du artikulu honetan aipatzen den proiektuak, eta instalatu osteko lehen 15 egunetan, berriz, emandako baimenaren arabera zuzen muntatu dela ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko da.

20.2. Plentziako Hiribilduko Udal Erregistroan aurkeztuko dira eskabideak, jarduera abian jarri baino 30 egun lehenago, gutxienez, eta jarduera hori zein egutegiren arabera burutu nahi den zehatz-mehatz adieraziz.

20.3. Eskabidearekin aurkeztu diren elementuak eta aurreikusitako instalazioak egiaztatzeko, aginpidea duten udal zerbitzuek, errekerimendu bakar batean, honako hauek eska diezazkiokete eskatzaileari: dokumentazioa, materialen laginak eta behar adinako zehaztasuna duten planoak, instalaziora egiaztatze bisita bat egitea, edota iritzi bat hartzeko edota zehazten joateko beharrezkotzat jotzen duten beste edozein elementu. Horrek guztiak eragin dezakeen gastu oro interesdunaren kontura izango litzateke.

**21. artikulua.—*Ebazpena***

21.1. Ordenantza honetan adierazitako moduan eskabidea behin aurkeztuta, horri buruzko txosten teknikoa egingo da, eta baita juridikoa ere, beharrezkotzat jotzen bada. Txosten teknikoan baimena ematea proposatuko da, baita eskatzen den okupazio eta instalazioari baimena zein baldintza zehatzetan eman behar zaion ere, beti ere eskatzaileak proposatutakoari ahal beste gerturatuz.

21.2. Aginpidea duen udal agintaritzak legez ezarrita dauden epeetan erantzungo dio eskaerari. Lizentzia eskudun organoak onarturiko eredu ofizialean emango da, eta zein baldintzapeanematen den adierazi beharko da bertan; baldintza horien artean, gutxienez, honako datu hauek jaso beharko dira: baimendutako mahai eta jarleku kopurua guztira, baimena dagokion espazioak zein neurri dituen, kokapena, ordutegia eta ingurumen alorrean dituen mugapenak. Lizentziari, edonola ere, emakidarako oinarritzat erabili zen xehetasun planoaren kopia erantsi beharko zaio, emakidaren aldeko proposamena egin zuen teknikariak behar bezala zigilatu eta sinaturikoa. Lizentziak jabetza eskubidea gordez eta besteri kalterik eragin gabe emango dira, eta lizentzia edukitzeak ez du txikitzen edo desagerrarazten onuradunak bere jarduerak betetzean izan dezakeen erantzukizun zibila edo penala. Era berean, eskatzaileak udalaren eskumenekoak ez diren beste baimen batzuk eskuratu beharko ditu agian, esaterako beste Administrazio Publiko batzuenak edo araubide juridiko pribatukoak.

21.3. Lizentziak emateko edo ukatzeko garaian, Ordenantza honetan ezarritako baldintzak betetzen diren ala ez hartuko da kontuan, baita instalazioa ipini nahi den bide edo lurzoruaren ezaugarriak ere, eta, azkenik, instalazio bakoitzak dituen ezaugarri objektiboak (dagozkion txostenak eskatu ostean, horietan islatuta ageri direnak).

h) Copia de la prima del seguro de responsabilidad civil señalado en el artículo 22.

i) Propuesta de la instalación, la cual dispondrá al menos de la siguiente documentación:

— Plano de planta a escala de 1:100, en el que se recoja el tramo de vía pública afectado por la instalación, con detalle de la distribución de mesas y sillas, protecciones laterales, jardineras, parasoles (señalando su proyección horizontal) e indicación de la longitud de fachada, y del ancho de los pasos libres resultantes, reflejando, además, la existencia de cualquier obstáculo fijo (señales de tráfico, árboles, bancos, mobiliario urbano..., etc.), y de posibles afecciones a servicios municipales (agua, saneamiento, gas...), así como locales colindantes.

— Indicación del mobiliario que se va a instalar, el cual deberá recibir el visto bueno de los servicios técnicos municipales.

— Plano de detalle, a escala de 1:20, en planta y alzado, de cualquier cubrición provisional a que alude el artículo 15.

— Cuando por razones de seguridad y ornato y a juicio municipal razonado, se estime necesario, se exigirá que el proyecto a que se refiere este artículo venga avalado por la firma del técnico competente, y una vez finalizada su instalación se aportará, en plazo inferior a 15 días un certificado del correcto montaje, acorde a la solicitud concedida.

20.2. Las solicitudes se presentarán en el Registro Municipal del Ayuntamiento de la Villa de Plentzia con 30 días de antelación como mínimo a la puesta en marcha de la actividad, adjuntando el calendario exacto en que se pretende ejercer la misma.

20.3. Para la verificación de los elementos presentados e instalaciones previstas, los servicios municipales competentes podrán solicitar del peticionario, en un solo requerimiento, documentación, muestras de materiales y planos suficientemente indicativos, realizar visita de comprobación, o disponer cualquier otro elemento de juicio que considere necesario para su más completa definición, debiendo ser por cuenta del interesado los gastos que con este motivo se originasen.

**Artículo 21.—*Resolución***

21.1. Formulada la petición, en los términos exigidos en la presente Ordenanza, se expedirá informe técnico y jurídico, en su caso, al respecto. En el informe técnico se propondrá la autorización y las condiciones específicas de la ocupación e instalación que deban autorizarse, ajustándose en lo posible a la propuesta del solicitante.

21.2. La Autoridad Municipal competente resolverá la solicitud en los plazos legalmente establecidos. La licencia se emitirá en modelo oficial, que será aprobado por órgano competente, deberá incluir, al menos, el número total de mesas y sillas autorizadas, las dimensiones del espacio sobre el que se autoriza, su situación, los toldos y sombrillas y sus características, el horario y las limitaciones de índole ambiental a las que queda condicionada la licencia. En todo caso, adjunto a la licencia deberá figurar copia del plano de detalle de la terraza que sirvió de base a la concesión, debidamente sellado y rubricado por el técnico que realizó la propuesta favorable. La licencia siempre se entenderá otorgada a salvo del derecho de propiedad y sin perjuicio del de tercero, no pudiendo ser invocada para excluir o disminuir la responsabilidad civil o penal en que hubiera incurrido la persona titular en el ejercicio de sus funciones, ni exime de la necesidad, en su caso, de obtener otras autorizaciones de competencia no municipal, caso de otras Administraciones públicas, o de régimen jurídico privado.

21.3. La concesión o denegación de las licencias se efectuará en función del cumplimiento de los requisitos previstos en la presente Ordenanza, de las características de la vía o terreno donde se pretende la instalación y de las circunstancias objetivas en cada caso concurrentes y constatadas en los informes que tales efectos se soliciten.

cve: BAO-BOB-2015a052

21.4. Hilabeteko epean beren beregi ebazten ez bada, eskaera atzera bota dela ulertuko da, salbu eta hartuko den espazio guztia titulartasun pribatuko lurzorua bada eta ordenantza honetako baldintzak hausten ez baditu.

**22. artikulua.—*Erantzukizun zibileko asegurua***

Establezimenduaren jabeak, Jendaurreko Ikuskizunei eta Jolas Jarduerei buruzko Legearekin bat, erantzukizun zibileko eta suteetako aseguru poliza izan beharko du, eta poliza horrek, gainera, terrazaren jardunean sor litezkeen antzeko arriskuei ere estaldura eman beharko die.

**23. artikulua.—*Lizentzia urtero berritzea***

Baimena eman ostean, interesdunak hurrengo urteetan ere berritu ahal izango du, aurrez hala eskatzen badu.

23.1. Oro har, eskaeran eskatzailearen datu pertsonalak eta jatorrizko baimenaren kopia bakarrik jasoko dira. Hirugarren batzuen onespena beharrezkoa denean, berriz, onespena berritu eta horren agiria ere aurkeztu beharko da.

23.2. Aginpidea duen udal agintaritzak emandako ebazpenaren bidez berrituko da baimena; ebazpen horretan, instalazioa ipintzeko baldintzak gogorarazi, eta sortutako udal eskubideak ezarriko dira.

23.3. Aurreko urtean lehen aldiz lortu edo berritu zen lizentzia bakarrik berritu daiteke. Denbora gehiago igaro bada, lizentzia berria eskatu beharko da ordenantza honetan ezarrita dagoenari jarraituz.

**24. artikulua.—*Lizentziaren baldintzak***

24.1. Lizentzia guztiak jabetza eskubidea gordez eta besteri kalterik eragin gabe emango dira, eta lizentzia edukitzeak ez du txikitzen edo desagerrarazten onuradunak bere jarduerak betetzean izan dezakeen erantzukizun zibila edo penala. Era berean, eskatzaileak udalaren eskumenekoak ez diren beste baimen batzuk eskuratu beharko ditu agian, esaterako beste Administrazio Publiko batzuenak edo araubide juridiko pribatukoak.

24.2. Lizentziaren agirian instalazioaren eta horren elementu osagarrien baldintzak zehaztuko dira, baimenduriko altzariak zehazki non kokatuko diren adierazi, eta zenbat mahai jar daitezkeen, jarduerak zein ordutegi izango duen eta lizentziaren indarraldia zein den zehaztuko da, eta baita beharrezkotzat jotzen diren bestelako gorabeherak ere.

24.3. Lizentziaren jabeak toki eskuragarriren batean gorde beharko du lizentzia agiria edo haren kopia, baita terraza edo mahaitxoen planoak ere, baimena emateko oinarri gisa erabili direnak.

Lizentziarik izan ezean edota dagoena udal agiritegian denarekin bat ez badator, instalazioa lizentzia gabekotzat hartuko da, interesdunak aurkez ditzakeen kontrako frogen eta hortik etor daitezkeen arduren nahiz egoera horrek eragin litzakeen balizko kitapenen kalterik gabe.

24.4. Lizentziak behin-behinekoak izango dira beti, beraz, edozein unetan kendu ahal izango dira eta udal agintaritzak, behar bezala arrazoituz gero, agindu dezake baimenduriko instalazioak bide publikotik kentzea, baldin eta trafikoko, hirigintzako edo guztien intereseko gorabeherak direla-eta hala egitea komeni bada; hori gertatuz gero, jabearen kontura izango dira gastu guztiak eta ez du izango inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik.

24.5. Lizentziaren titularraren betebeharra da, lizentzia mantenduko badu, okupatzen duen gunean diren ureztatzeetarako ur hargune, tapa eta erregistro nahiz bestelako instalazioak erabiltzen eta konpontzen uztea.

24.6. Lizentziaren titularrak instalazioaren eraginez bide publikoan sortutako kalte guztiak konpondu beharko ditu.

**25. artikulua.—*Eskabideak aurkezteko epea eta indarraldia***

25.1. Terraza eta mahaitxoak ipintzeko lizentzia berrien eskaerak urte osoan egin ahal izango dira, baina jarduera abian jarri baino 30 egun lehenago, gutxienez.

21.4. La no resolución expresa en el plazo de un mes tendrá efectos desestimatorios, salvo que la solicitud de ocupación afecte únicamente a suelo de titularidad privada y no infrinja las condiciones de la presente ordenanza.

**Artículo 22.—*Seguro de responsabilidad civil***

La póliza de seguro de responsabilidad civil e incendios de que deba disponer el titular del establecimiento, de acuerdo con la Ley de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas, deberá extender su cobertura a los posibles riesgos de igual naturaleza que puedan derivarse del funcionamiento de la terraza.

**Artículo 23.—*Renovación anual de la licencia***

Una vez concedida la licencia, podrá renovarse en años consecutivos, previa solicitud al efecto.

23.1. La solicitud únicamente contendrá los datos personales del solicitante y copia de la autorización de la licencia original. También deberá aportar actualización de la conformidad de terceras personas cuando fuera necesaria.

23.2. La licencia será renovada mediante resolución de la autoridad municipal competente, en la que se recordarán las condiciones para su instalación y se establecerán los nuevos derechos municipales.

23.3. Únicamente cabe la renovación de una licencia cuando esta se efectúe en el año consecutivo a la autorización inicial o a una renovación. En caso contrario, deberá solicitar y obtener nueva licencia, de acuerdo con la presente ordenanza.

**Artículo 24.—*Condiciones de la licencia***

24.1. Todas las licencias se otorgarán dejando a salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio de terceros, no pudiendo ser invocada para excluir o disminuir la responsabilidad civil o penal en que hubiera incurrido la persona titular en el ejercicio de sus facultades, ni exime de la necesidad, en su caso, de obtener otras autorizaciones de competencia no municipal, caso de otras Administraciones Públicas, o de régimen jurídico privado.

24.2. En el documento de la licencia se fijarán las condiciones de la instalación y elementos auxiliares, ubicación concreta del mobiliario autorizado, número de mesas autorizadas, horario de funcionamiento, vigencia de la licencia y demás particularidades que se estimen necesarias.

24.3. El titular de la licencia queda obligado a disponer en lugar de fácil acceso el documento de la licencia o copia del mismo, así como los planos, correspondientes a terraza o velador, conforme al cual le ha sido otorgada la licencia.

Cuando se carezca del citado documento o este no se corresponda con el existente en los archivos municipales será considerada la instalación sin licencia, sin perjuicio de prueba en contra por parte del interesado y de las responsabilidades que ello suponga y la liquidación que en su caso proceda.

24.4. La licencia tendrá siempre carácter de precario, y, en consecuencia, son revocables en cualquier momento, por lo que la autoridad municipal podrá ordenar de forma razonada la retirada de la vía pública y a costa del particular de las instalaciones autorizadas, cuando circunstancias de tráfico, urbanización o cualquier otra de interés general así lo aconsejen, y ello sin derecho a indemnización alguna.

24.5. Las licencias quedan condicionadas a posibilitar la utilización o reparación de las bocas de riego, tapas y registros y otras instalaciones que estuviesen en su área de ocupación.

24.6. El titular de la licencia queda obligado a reparar cuantos daños se produzcan en la vía pública, como consecuencia de la instalación.

**Artículo 25.—*Plazo de solicitud y vigencia***

25.1. Las solicitud para las nuevas licencias de terrazas y veladores se podrán efectuar a lo largo de todo el año, pero con una antelación de 30 días al inicio de la actividad.

cve: BAO-BOB-2015a052

25.2. Lizentziek interesdunak eginiko eskaeraren araberako indarraldia izango dute, baina beti ere jarraian aipatzen diren baldintzak betez eta 22. artikuluan lizentziak urtero berritzeaz ezartzen dena kontuan hartuta:

a) Lizentzia eskatu den urterako bakarrik eman ahal izango da, eta hamabi hilabeteko indarraldia izango du gehienez ere.

b) Indarraldia luzatzeko eskaerarik ez da onartuko.

**26. artikulua.—*Jarduteko ordutegia***

26.1. Jarduera nagusiari zein ordutegi baimendu zaion alde batera utzita, terraza eta mahaitxoak ipintzeko bi garai ezarri dira. Honako hauek dira:

a) Negu garaia (urtarrilaren 1etik maiatzaren 31ra eta urriaren 1etik abenduaren 31ra):

— Igandetik ostegunera bitartean: 23:00ak arte.

— Ostiral, larunbat eta jai bezperetan: 24:00ak arte.

b) Uda garaia (ekainaren 1etik irailaren 30era):

— Igandetik ostegunera bitartean: 24:00ak arte.

— Ostiral, larunbat eta jai bezperetan: goizeko ordubata arte.

26.2. Halaber, udako ordutegia ezarriko da herriko zaindariaren omenezko jaietan, Aste Santuan ostegunetik astelehenera bitartean, aratusteetan, abenduaren 21etik urtarrilaren 6ra bitartean, eta Udalak turismoarentzat interesgarri jotzen dituen azoketan (Liburu Azoka, etab.), erakusketetan nahiz antzeko beste ospakizunetan.

26.3. Terraza eta mahaitxoak ipintzeko ordutegia behin amaitzen denean, elementu guztiak bide publikotik kendu, eta horretarako dagoen espazio pribatuan gorde beharko dira. Zeregin horretarako 20 minutu ematen dira.

26.4. Establezimendu nagusia irekitzen den ordu berean irekiko da terraza ere. Establezimendua irekita dagoela ulertuko da lokalera edo instalaziora bezeroei sartzen uzten zaien momentutik.

**27. artikulua.—*Instalazioaren titularraren betebeharrak***

27.1. Betebehar orokorrak eta Ordenantza hau ezartzetik sor daitezkeenak betetzeaz gainera, instalazioaren titularrak lizentziaren baldintzen arabera ipini beharko du instalazioa. Udaleko teknikariei lizentziaren baldintzak nahiz lizentzia horri erantsiko zaion oinplanoa interpretatzea eskatu ahal izango die.

27.2. Lizentziaren titularrak erabat garbi, seguru eta apain mantendu beharko ditu, bai lizentzia horren arabera erabil dezakeen lurzoru zatia, eta bai instalazioa bera nahiz beronen elementu osagarriak ere, eta horretarako behar beste bitarteko erabiliko ditu (zakarrontziak, hautsontziak, etab.).

27.3. Establezimendua ixten denetik jabeak ordubete izango du terrazak edota mahaitxoak garbitzeko; hala ere, garbiketa orokor horretaz landa, terraza edo mahaitxoek beharrezko diren higiene baldintza guztiak bete beharko dituzte uneoro.

27.4. Instalazioaren titularrak dagozkion tasak eta gainontzeko zergak ordaindu beharko dizkio Udalari, Ordenantza Fiskaletan ezarritako zenbatekoan eta eran.

27.5. Instalazioaren titularrak indarrean izan beharko du 22. artikuluan aipatzen den asegurua.

VI. KAPITULUA

**DIZIPLINA ARAUBIDEA**

**28. artikulua.—*Udalaren lizentziarik gabeko instalazioak***

28.1. Udal agintaritzak bide publikoan lizentziarik gabe ipinitako mahaitxo eta terrazak aldez aurretik ohartarazi gabe kendu ahal izango ditu, badaezpada eta berehala, eta Udalaren biltegietan gorde. Hori guztia mahaitxo eta terraza horien arduradunaren kontura egingo da eta arauzko zigorrak ezarri ahal izango zaizkio.

25.2. Las licencias tendrán un período de vigencia acorde con lo solicitado por el interesado, pero siempre con las siguientes condiciones, todo ello sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 22 sobre renovación anual de la licencia:

a) La licencia solo podrá otorgarse para el año en el cual ha sido solicitada, siendo el período máximo de vigencia de doce meses.

b) No se otorgarán prórrogas respecto del período solicitado.

**Artículo 26.—*Horario de funcionamiento***

26.1. Con independencia del horario que tenga autorizado la actividad principal, se establecen dos períodos según el detalle siguiente:

a) Período invernal (del 1 de enero al 31 de mayo y del 1 de octubre al 31 de diciembre):

— De domingo a jueves: hasta las 23:00 horas.

— De viernes, sábados y vísperas de fiesta: hasta las 24:00 horas.

b) Período estival (del 1 de junio al 30 de septiembre):

— De domingo a jueves: hasta las 24:00 horas.

— De viernes, sábados y vísperas de fiesta: hasta la 1 de la madrugada.

26.2. Asimismo, con ocasión de las fiestas patronales, de jueves a lunes de Semana Santa, en Carnavales, desde el 21 de diciembre al 6 de enero y en el caso de acontecimientos feriales (Feria del Libro, etc.), exposiciones u otros análogos calificados de interés turístico por el Ayuntamiento, el horario de funcionamiento aplicable será el del Período estival.

26.3. Finalizado el horario de funcionamiento de la terraza o velador deberán retirarse todos los elementos de la vía pública y depositarse en el espacio privado habilitado al efecto, para lo que se concede un tiempo de 20 minutos.

26.4. El horario de apertura de la terraza irá ligado al de apertura del local correspondiente. Se entiende por horario de apertura el momento a partir del cual se permitirá el acceso de los usuarios al recinto o instalación.

**Artículo 27.—*Obligaciones del titular de la instalación***

27.1. Sin perjuicio de las obligaciones de carácter general, y de las que se deriven de la aplicación de la presente Ordenanza, el titular de la instalación queda obligado a efectuar la instalación de acuerdo con las condiciones de la licencia. Podrá solicitar a los técnicos municipales la interpretación de las condiciones y del plano de ocupación que se adjuntará a la licencia.

27.2. Deberá mantener tanto el suelo cuya ocupación se autoriza, como la propia instalación y sus elementos auxiliares en perfectas condiciones de limpieza, seguridad y ornato, disponiendo para ello de todos los medios necesarios como papeleras, ceniceros, etc.

27.3. La limpieza general de las terrazas, veladores se realizará en el plazo de una hora contada a partir de la hora de cierre del establecimiento, con independencia de que en todo momentos se mantengan las debidas condiciones de higiene.

27.4. El titular de la instalación abonará al Ayuntamiento las tasas y demás exacciones que pudieran corresponderle en la cuantía y forma establecidas por las Ordenanzas Fiscales.

27.5. El titular de la instalación deberá disponer vigente el seguro al que se alude en el artículo 22.

CAPÍTULO VI

**RÉGIMEN DISCIPLINARIO**

**Artículo 28.—*Instalaciones sin licencia municipal***

28.1. La autoridad municipal podrá retirar, de forma cautelar e inmediata, sin previo aviso, los veladores y terrazas instalados sin licencia en la vía pública, y proceder a su depósito en los almacenes municipales, a cargo de la persona responsable, sin perjuicio de la imposición de las sanciones reglamentarias.

cve: BAO-BOB-2015a052

28.2. Lizentziaren indarraldia amaitu ondoren terrazak eta mahaitxoak ipinita edukitzea Udalaren baimenik gabe jardutearekin parekatuko da zigor ondorioetarako.

**29. artikulua.—*Lizentziaren baldintzak ez betetzea***

29.1. Emandako baimenaren baldintzak edota Ordenantza honetan jasotako aginduak ez betetzeak isun ekonomikoa ekarriko du, indarrean dagoen legerian oinarriturik.

29.2. Dagokion zigor espedientea izapidetu ostean, instalazio guztia desmuntatu eta lekutik kentzeaz gain ondoko zigor hauek ezarri ahal izango zaizkio arduradunari:

a) Isuna, Hirigintza Diziplinako Araudian eta Ordenantza honetan ezarritako zenbatekoan.

b) Ordutik aurrera, Ordenantza honek arautzen dituen baimenak lortzeko gaitasunik gabe utziko da establezimendua, 2 urtez gehienera ere.

29.3. Ordenantza hau urratzen bada, lizentziaren titularra edo, bestela, dagokion establezimenduaren jabea izango da horren erantzulea.

**30. artikulua.—*Arau hausteak***

Udal Ordenantza honen ondorioetarako, arau hausteak hiru mailatan sailkatzen dira: arinak, larriak eta oso larriak.

30.1. Arau hauste arintzat hartuko dira:

a) Terraza edo mahaitxoak ezarritako ordutegitik kanpo ipintzea, ordutegi horrekiko ordu erdiko aldearekin.

b) Baimendu den elementu kopurua gainditzea (mahaiak, jarlekuak eta bestelako elementu osagarriak).

c) Mahaien, jarlekuen edo elementu osagarrien %10 baino gehiago baimendutako lekutik kanpo kokatzea.

d) Baimendu den okupazio azalera behar bezain apain, seguru eta garbi ez mantentzea.

e) Establezimenduaren ondoan edo inguruetan diren hiri altzari eta apaingarrietan kalte arinak eragitea, beti ere baimendutako jardueraren ondorioz eragindakoak badira.

f) Ordenantza honetan ezarritako araudia ez betetzea.

30.2. Arau hauste larritzat hartuko dira:

a) Terraza edo mahaitxoak ezarritako ordutegitik kanpo ipintzea, ordutegi horrekiko ordu erdi baino gehiagoko baina ordubete baino gutxiagoko aldearekin.

c) Mahaien, jarlekuen edo elementu osagarrien %10 baino gehiago baimendutako lekutik kanpo kokatzea.

d) Baimendutako gehieneko muga gainditzen duten zaratak eragitea.

e) Eskatzen dituzten ikuskatzaile edo udal agintariei dagozkion udal baimenak ez erakustea.

f) Ordenantza honetan aipatzen diren elementuak ipintzean, hemen ezartzen diren baldintza tekniko eta estetikoak ez betetzea.

g) Zigor espedientea abiarazi aurreko hamabi hilabeteetan bi arau hauste arin egin izana, ebazpen irmoz beren zigorra jaso dutenak.

30.3. Arau hauste oso larritzat hartuko dira:

a) Zigor espedientea abiarazi aurreko hamabi hilabeteetan bi arau hauste larri egin izana, ebazpen irmoz beren zigorra jaso dutenak.

b) Terrazak edo mahaitxoak ipintzeagatik beste pertsona batzuei gune publiko hori erabiltzea galarazi izana, pertsona horiek ere horretarako eskubidea izan arren.

c) Terrazak edo mahaitxoak ipintzeagatik gune publikoetan kalte larriak eta nabariak eragin izana.

d) Lizentziaren indarraldia behin amaituta edo udal agintaritzak hala eskatu badu instalazioak ez kentzea.

e) Instalazioak Udalaren baimenik gabe ipintzea.

28.2. La permanencia de terrazas y veladores, tras la finalización del período amparado por la licencia será asimilada, a los presentes efectos disciplinarios, a la situación de falta de autorización municipal.

**Artículo 29.—*Incumplimiento de las condiciones de la licencia***

29.1. El incumplimiento de las condiciones de la autorización otorgada o de los preceptos recogidos en la presente Normativa, dará lugar a la imposición de una sanción económica en los términos de la legislación vigente.

29.2. Previa tramitación del oportuno expediente sancionador, podrán ser impuestas, con independencia del desmontaje y retirada de toda la instalación, las siguientes sanciones:

a) Multa por cuantía prevista en el Reglamento de Disciplina Urbanística y en la presente Ordenanza.

b) Inhabilitación del establecimiento para la obtención de futuras autorizaciones reguladas por esta Ordenanza, durante el plazo máximo de 2 años.

29.3. Se considerará responsable por el incumplimiento de la presente ordenanza a la persona titular de la licencia o, en su caso, la del establecimiento correspondiente.

**Artículo 30.—*Infracciones***

A los efectos de la presente Ordenanza municipal, las infracciones clasifican en leves, graves y muy graves.

30.1. Tendrán la consideración de infracciones leves:

a) Colocación de terrazas y veladores fuera del horario establecido con un exceso de media hora.

b) Colocación de elementos (mesas, sillas y otros elementos auxiliares) excediendo el número de elementos autorizado.

c) La ubicación de mesas, sillas o elementos auxiliares fuera de la ubicación autorizada en más de un 5 por 100.

d) No mantener el espacio de ocupación en las debidas condiciones de ornato, seguridad y limpieza.

e) El deterioro leve en los elementos del mobiliario y ornamentales urbanos anejos o colindantes al establecimiento que se produzcan como consecuencia de la actividad objeto de la licencia.

f) El incumplimiento de la normativa establecida en la presente Ordenanza.

30.2. Tendrán la consideración de infracciones graves:

a) Colocación de terrazas y veladores fuera del horario establecido con un exceso de más de media hora y menos de una hora.

c) La ubicación de mesas, sillas o elementos auxiliares fuera de la ubicación autorizada en más de un 10 por 100.

d) La emisión de ruidos por encima de los límites autorizados.

e) La no exhibición de las autorizaciones municipales preceptivas a los inspectores o autoridades municipales que lo soliciten.

f) La colocación de elementos sujetos a la presente Ordenanza sin respetar las condiciones técnicas y estéticas establecidas en la presente.

g) La comisión de dos infracciones leves, con imposición de sanción por resolución firme, durante los doce meses anteriores al inicio del expediente sancionador.

30.3. Tendrán la consideración de infracciones muy graves:

a) La comisión de dos infracciones graves, con imposición de sanción por resolución firme, durante los doce meses anteriores al inicio del expediente sancionador.

b) El impedimento del uso de un espacio público a otras personas con derechos a su utilización ocasionada con las instalaciones de terrazas y veladores.

c) Los actos de deterioro grave y relevante de los espacios públicos causados por la instalación de terrazas y veladores.

d) No desmontar las instalaciones una vez terminado el Período de licencia o cuando así fuera ordenado por la autoridad municipal.

e) Colocar las instalaciones sin autorización municipal.

cve: BAO-BOB-2015a052

f) Ordutegia ez betetzea, ixteko ordua ordubete edo gehiagoz atzeratuz.

g) Mahaien, jarlekuen edo elementu osagarrien %20 baino gehiago baimendutako lekutik kanpo kokatzea.

**31. artikulua.—*Zigorrak***

31.1. Ordenantza honetako arau hausteak isun bidez zigortuko dira, honako eskala hau aintzat hartuta:

a) Arau hauste arinak zigortzeko, 200 eurotik 750 eurora bitarteko isuna ezarriko da, edo/eta lizentzia ezeztatu eta, beraz, berehala kenduko da instalazioa, udal errekerimenduari muzin egiten zaionean.

b) Arau hauste larriak zigortzeko, 751 eurotik 1.500 eurora bitarteko isuna ezarriko da, edo/eta Ordenantza honek arautzen dituen baimenak lortzeko gaitasunik gabe utziko da establezimendua ordutik aurrera urtebeterako, gertakarien larritasunaren arabera.

c) Arau hauste oso larriak zigortzeko, 1.501 eurotik 3.000 eurora bitarteko isuna ezarriko da, edo/eta Ordenantza honek arautzen dituen baimenak lortzeko gaitasunik gabe utziko da establezimendua ordutik aurrera 2 urterako, gertakarien larritasunaren arabera.

31.2. Instalazioa geroago legeztatzen bada, eta lehenago arau hausterik egon ez bada edo udal errekerimenduei trabarik jarri ez bazaie, zigorra diru isuna ordainaraztera muga daiteke.

31.3. Aurreko artikuluan ezarritako zigorrak aplikatzerakoan, arau haustean nabari den erruduntasun maila, arau haustearen garrantzia eta horrekin eragindako arriskua hartuko dira kontuan, eta baita ere lehenago arau hausterik egon den, edota gertaeraren aringarri diren edo berori larriagotzen duten bestelako inguruabarrik den ere.

31.4. Instalazioa ipintzeagatik jabetza publikoak hondatu edo kaltetuz gero, ezartzen zaizkien zigorrak betetzeaz gainera, lizentzien titularrek egindako kalteak konpondu beharko dituzte.

**32. artikulua.—*Zigor prozedura***

Zigor prozedura izapidetzean honako arau hauek aplikatuko dira: azaroaren 26ko 30/1992 Legearen IX titulua, eta abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretua, zigortzeko ahalmenaz baliatzeko Prozedura ezartzen duena.

**33. artikulua.—*Betearazte subsidiarioa***

Instalazioaren arduradunak bide publikoan ipinitako elementuak kentzeko Udalak emandako aginduari jaramonik egiten ez dionean, Ordenantza honetan jasotako egoeretan, Administrazioak berak elementu horiek dauden lekutik kendu eta Udalaren biltegietan gordeko ditu; jabeak dagozkion tasak eta gastuak ordaindu ondoren eskuratu ahal izango ditu.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa:* Udal agintaritzak berariazko baimena du Ordenantza hau interpretatu, argitu eta garatzeko.

*Bigarrena:* Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu ostean jarriko da indarrean, apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 65.2 artikuluak aurreikusten duen epea behin igaro ondoren.

Plentzian, 2015eko martxoaren 10an.—Alkatea, Isabel Zarauza Norato

(II-1828)

f) El incumplimiento del horario de cierre por exceso en una hora o superior Período de tiempo.

g) La ubicación de mesas, sillas o elementos auxiliares fuera de la ubicación autorizada en más de un 20 por 100.

**Artículo 31.—*Sanciones***

31.1. Las infracciones de la presente Ordenanza serán sancionadas con multa de conformidad con la siguiente escala:

a) Infracciones leves con multa de 200 a 750 euros y/o revocación de la licencia y consiguiente retirada inmediata de la instalación, en casos de desobediencia al requerimiento municipal.

b) Infracciones graves con multa de 751 a 1.500 euros y/o inhabilitación del establecimiento para la obtención de futuras autorizaciones reguladas en la presente ordenanza, durante y plazo de 1 año, a tenor de la gravedad de los hechos.

c) Infracciones muy graves con multa de 1.501 a 3.000 euros y/o inhabilitación del establecimiento para la obtención de futuras autorizaciones reguladas en la presente ordenanza, durante el plazo de 2 años, a tenor de la gravedad de los hechos.

31.2. Si la instalación fuera legalizada posteriormente, y no se hubiese dado reiteración, o resistencia a los requerimientos municipales, la sanción se podrá limitar a la sanción económica.

31.3. En la aplicación de las sanciones que se establecen en el artículo anterior se atenderá al grado de culpabilidad, entidad de la falta cometida, peligrosidad que implique la infracción, reincidencia o reiteración y demás circunstancias atenuantes y agravantes que concurran.

31.4. En el caso de destrucción o deterioro del dominio público ocasionado como consecuencia de la ocupación, y con independencia de las sanciones que se establezcan, los titulares de las licencias quedan obligados a la reparación de los desperfectos.

**Artículo 32.—*Procedimiento sancionador***

En la tramitación del procedimiento sancionador se aplicarán las reglas establecidas en el título IX de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, y en el Real Decreto 1398/1993, de 4 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento del Procedimiento para el ejercicio de la potestad sancionadora.

**Artículo 33.—*Ejecución subsidiaria***

Cuando el responsable de la instalación hiciera caso omiso de la orden municipal de retirada de los elementos instalados en vía pública, en los supuestos recogidos en esta Ordenanza, la Administración procederá al levantamiento de los mismos, quedando depositados en los almacenes municipales, de donde podrán ser retirados por la propiedad, previo abono de las tasas y gastos correspondientes.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera:* Se autoriza expresamente a la autoridad municipal para interpretar, aclarar y desarrollar la presente Ordenanza.

*Segunda:* La presente Ordenanza entrará en vigor una vez publicado su texto íntegro en el «Boletín Oficial de Bizkaia», transcurrido el plazo previsto en el artículo 65.2 de la Ley 7/1985, de 2 de Abril, reguladora de las Bases de Régimen Local.

En Plentzia, a 10 de marzo de 2015.—La Alcaldesa, Isabel Zarauza Norato

(II-1828)

•

## Gatikako Udala

**Alkatea kanpoan dagoela eta karguari dagozkion funtzioak eskuordetzea (34/2015 Alkatetzaren Dekretua).**

Alkatetzak, 2015eko martxoaren 11n 34 zenbakidun Alkatetza Dekretuz honakoa egiaztatu dau:

«2015eko martxoaren 19tik apirilaren 12ra, biak barne, Gatikako Udala mugartetik kanpo egongo naiz.

Toki Erakundeen Antolaketa, Jardunbide eta Araubide Juridikoari buruzko Araudian xedaturik dagoena dela bide, ondokoa

## Ayuntamiento de Gatika

**Delegación funciones Alcalde por ausencia (Decreto de Alcaldía 34/2015).**

La Alcaldía por Decreto número 34, de fecha 11 de marzo de 2015, ha dispuesto lo siguiente:

«Teniendo prevista mi ausencia del término municipal de Gatika desde el día 19 de marzo al 12 de abril de 2015, ambos inclusive.

En virtud de lo dispuesto en el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales

cve: BAO-BOB-2015a052